

KarKara

28A

28. ZENBAIA

ORIOKO ALDIZKARIA

1934KO OTSAILA



355-21783

Erreportaia

Arrantza: zer hintzen eta non hago

Elkarrizketa

Mirentxu Campos

TXISTE ETA ASMAKIZUNEN TXOKOA

Zenbaki honetatik aurrera KARKARAK zuek kontatutako txistea eta asmakizunak argitaratu nahi ditu. Horretarako ezinbestekoa dugu zuen partaidetza, beraz anima zaitezte eta bidali zuen txiste eta asmakizunak gure bulegora.

Gure helbidea: Txiste eta asmakizunak. KARKARA. Herriko plaza. Iristen direnak, pixkanaka argitaratuko ditugu. Oraingo honetan eta hasiera emateko, guk aukeratutakoak dituzue.

Ea, gustatzen zaizkizuen!

ASMAKIZUNAK

- ✓ Zenbat eta gehiago kendu orduan eta handiagoa egiten da.
- ✓ Arbola bakoitzak hamabi adar adar bakoitzak lau kabi kabi bakoitzak zazpi arrautz.
- ✓ Ipurdia du baina hankarik ez gorputza du baina besorik ez lepoa du baina bururik ez.

(Erantzunak, hurrengo alean)

TXISTEAK

- Zuk ze izen daukazu?
- Ko - ko - kosme A - a - aizmendi.
- Ze pena, totela zara.
- Ni! Ze izango naiz ni totela !
- Ez dakit, esan zure izena berriro mesedez.
- Ko - ko - kosme A - a - aizmendi.
- Niri ez esan zu totela ez zarela.
- Ez nalzela ni totela, totela nire aita zen, eta erregistoko langilea babo arrayual!

Riiiiiiing, Riiiiiiing?...

- Bai Esan.
- Bai



Gure
herriko
garagardoa

O R I O

Auto Eskola

Telfonoa: 83 57 19

AXUN

JANARIAK

Telfonoa: 83 59 02

Tragorika
Edaritegia
ORIO

IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15

KarKara

aldizkaria

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
800 ale

Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena

Manu Etxeberria

Miren Etxeberria

Ana G. de Txabarri

Ana Iturain

Iñaki Iturain

Nere Manterola

Idoia San Sebastian

Jabier Zabaleta

Publizitate-arduradunak

Miren Etxeberria

Ana Iturain

Kolaboratzaileak

Rafa G. de Txabarri

Patxi Oliden

J. F. Lukas

Azken orrialdeko

marrazkia

Daniel Bastos

Argazkiak

Ana G. de Txabarri

Inprimategia

Bizker (Usurbil)

- | | |
|----|--|
| 4 | Gutunak |
| 5 | Herrian galdezka
<i>Bolantak bai edo ez?</i> |
| 6 | Herriko kontuak |
| 10 | Kirolak |
| 13 | Bertsoak
<i>Kadera baten gañean</i> |
| 14 | Erreportaia
<i>Arrantza: zer hintzen eta non hago</i> |
| 17 | Iritzia
<i>El Salvador: Hamaken harana.</i>
J.F. Lukas |
| 18 | Elkarritzeta
<i>Mirentxu Campos. Abertzalesuna berregiteko taldeko kide</i> |
| 20 | Denetik piska bat |
| 25 | Kolaborazioa
<i>Itsasoren gora beherak</i> |
| 26 | Azkena |

1994eko publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Urbina-Maltzaga (autopista)

Ajola al zaigu oriotarroi Urbina-Maltzagaren gaia? Nik uste ajola zaigula, eta asko gainera.

Komunikabideak (autopistak, errepideak eta abar) oso importanteak dira desarrollorako. Ikusi besterik ez dago, Orioak pasatzen den autopista egin zenetik, askoz jende gutxiago geratzen dela Orion. Kontutan hartzeko da, gainera, zer aberia egin ziguten errikoan eta Ingurutan (Txinako harresi hori eraikiz).

Autopistarako akzesoa eskatzen jardun beharko genukeenean (Txankatik sartzeo eta hondarratzik ateratzeko), oztopo gehiago jarri nahi dizkio Orioren desarroilo ekonomikoari eta guk ez dugu horren kontra ezer esan edo egiten.

Roman Sodupek (EAJ), Gipuzkoako Azpiegiturako Diputatuak, esan zuen Maltzaga-Urbina proiektua egitekotan, Bilbo-Behobia autopistaren (A-8) peajea luzatu egin behar zela 2018. urterako arte. Ez zaie, nonbait, burutik pasatzen Suitzakoa bezalako erdibiderik, hau da, kanpotarrek autopista ordain dezatela eta bertakoek, berriz, mantendurako tarifa txiki bat besterik ez.

Gezurra dirudi Bilbo eta Donostia bezalako bi hiri lotzen dituen errepidea, CN-634a, horren bide kaskarra izatea. Kondizio normaletan hiri batetik bestera joateak bi orduetik gorako bidea egitea eskatzen du eta, jakina, horren ondorioz, gidariek autopista peajeduna erabili behar dugu, izugarri garesi lotzen duen aukera. Eusko Jaurlaritzari ezin hobeto datorkio guzti hori, horrela, azpiegituratan txakur txikirik ez

gastatzearaz gain, pozik jasotzen baitu, gainera, autopista-erabilitzaileek ordaindutako peajeen BEZA.

Leitzarango autobidea, Nazional 1-aren desdoblamiento eta Santanderako autobidea diru publikoa erabiliz egiten badira, justiziazko litzateke A-8ren peajea subentzianatzea, jendeak gehiago erabil ahal izan dezan.

Hala ere, ez dugu hainbeste eskatzen, baina bai eskatzen dugula peajea aldez aurrek jarrita dagoen epean, 2003. urtean, bukatzea.

Ez da bidezkoa A-8aren peajea gehiago luzatzea. Herri askori -eta Orio ere sarrian- autopista horrek behin-betiko irtenbidea emango lioke barianteen arazoari eta, nik uste, ohizko erabilitzaileek ederki irabazia dutela dagoeneko autopista hori doan izateko eskubidea.

Laburbilduz, Urbina-Maltzaga autopista hamar urteko epean eraikitze Eurovias enpresari 1974ean emandako adjudikazioa ez beterzeagatik erantzunkizunak eskatu beharrean, Bilbo-Behobia autopistaren peajea luzatzea planteatzen da, Urbina-Maltzaga 2003. urtea pasata eraikitzeo. Astakeria da.

Egin dadila Urbina-Maltzaga ardatza autopista-erregimenean.

ORIOTAR BAT

Erregeen kabalgata dela eta...

Hassieratik esan beharra dut, ez hemengo, ez beste herrietako errege festa guzti hori, behin ere ez dudala izan gogoko, guztia iruzur bestrik ez delako eta haurrei gezurra esateko bidea ematen dielako.

Marisko Biberoak

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

Sartu nadin harian eta Orioko festari buruz, ondo dago, edo ikusten dut festa bezela, danborrada izanez, ardatz nagusi,

Hau antolatzeak, bere lana ba du, bai antolatzileen aldetik, baita ere haurren ariketetik begiratuz, hauei erritmo kontu hori itsatsiaz; lehen esan bezela, festa bezela soilk. Iku puntu hontatik begiratuz, mila zorion.

Goazen orain abesti aldera: Urte askotxo dira erregeek bukaerako abesti hori urtetik urtera guztiz desitxuratzen doazela. Abesti hau, badakits ziur, Oriolar batek komposatu dela: ziur ez banago ere, uste dut, D. Santiago, organista zenaren, nik eragutu ez nuen anaiarena.

Hau horrela eta "gure gurea" den abesti polit hori, zergatik ez gehiago maite? ze, gainontzeko festa guztia hain ederki eraman eta azkenean lehenago esan bebzela oso osorik zikinduta utzi...

Nere uste apalean, haurrekiko danborrada ariketek bezelaxe, handiek, edo hobeto esan da, "erregeek" ere, ariketa sakon baten beharrean dira, herri guztien aurrean farragarri geldi ez daitezten eta festari behar bezelako bukaera ona eman.

Bainan ariketa horiek baino lehenago, aurrek hartuak ditzaten akats edo okerrak zuzentzeko, parritura bat beregan bezate.

Ez nuke nahi ferro hauek, edo hemen esaten ditudanak gaizki hartzerik, batzik denon onerako izan bitez.

PATXI OLIDEN



Autoak aukera
onean

AIA ORIO

Telefona: 13 04 38

Bolantak bai edo ez?

Gauza jakina da, frantes arrantzaleek bolantak erabiltzen dituztela eta euskal arrantzaleak beraien aurka altxatu direla. Manifestaldiak egin dira, Brusselara ere joan dira zenbait arrantzale... baina, ze iritzi dute Orioko arrantzaleek, eta beraien andre edo seme-alabek? Ze irtenbide eskaintzen dute?



JOSE LUIS URDANGARIN
36 urte

Niri frantsesek bolantakerabiltzea oso gaizki iruditzen zait, oso urte gutxitan dena arrasatuta geratuko dalako. Bolanten soluzioa galeraztea da, ez dago bolantekin ibiltzea inori uzterik.



ANTONIO MARTIKORENA
75 urte

Itsaso dana erretzenari dira. Hemengoak erabiltzen hasiko balira, hauetan ere galera egin beharko litzaicke. Bolantak arraia alpetrik galdu asko egiten du, eta arraia ikaratu eta ihes egiten du.

AMAIA URANGA
26 urte

Gaizki iruditzen zait bolantak erabiltzea, itsaso dana garbitzen ari dira... Soluzioa denak kentzea da. Hemengo arrantzaleek bolantak erabiltzeko aukera edukiko balute ere, ez lituzkete erabili beharko.



BITORIA MANTEROLA
49 urte

Denak berdin jartzea da soluzioa, bolantak kentzea.

Haien erara gu jarri arazten bagaitzute, akabo. Bi urtetan ondo irabazi arren, gero, gosea ekarriko luke.



**Bertan egindako
opil eta ogiak**



LIZASO
**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Mala. 3

Tfnoa: 83 10 90



IB SELLATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

**URANGA
BURDINDEGIA**

EUSKO GUDARI 7
TFNOA 83 12 36



Udalak liburuska bat argitaratuko du Untzi Museoaren laguntzaz

Udaleko Kultura Batzordeak liburuska bat argitaratuko du martxo aldean Donostiako Untzi Museoarekin elkar lanean. Liburua argitaratzeko proposamen Untzi Museoak egin zion Udalari joan den urteko San Pedrotan, Antonio de Gaztañetari buruzko erakusketa egin zenean.

Liburu horrek hiru lan bilduko ditu, hiru historialarik eginak, Orioko portuari edo garai bateko untzigintzari buruzkoak. Hiru lan horien tituluak honako hauek dira:

— «Oria ibaia, Gipuzkoako untzigintzaren gune neuralgikoa. Oria ibaiko untzigintzaren bilakaera», Maria Lourdes Odriozolak egina.

— «Tipologiarenean eboluzioa untzigintzan», Cruz Pestegik egina.

— «Orioko itsasadarraren portu-izaera: lehen errebindikazio-aldia (1533-1612)», Romana Enparanek egina.

Selma Huxleyek egingo dio sarrera liburuari.

Liburuaren bi edizio egingo dira, bata euskarak eta beste erdaraz. Euskarazko edizioaren 1.000 ale aterako dira eta erdarazkoarena, berri, 400. Udaleko Kultura Batzordeak aleak etxez etxe doan partitzeko asmoa du.

Liburua kaleratzearekin batera eta herrian lanaren berri zabaltzeko asmoz, hitzaldi batzuk ere antolatuko ditu Udalak.

Hondartzako ordenamendu berriaren abanzea onartu du Plenoak

Urtarrilaren 28ko Udal Plenoak Hondartzza inguruaren ordenamendu berriaren abanzeari lehen onarpena eman zion. EAJ, EA eta talde independenteak abanze horren aldeko bota eman zuten eta HBk kontrako.

HBk kontrako bota emateko hiru arrazoi eman zituen: herritarrei gaiaren eztabaidan parte hartzeko aukerarik eman ez izana, kirol portuaren kokapena eta lurjabeekin aldez aurretik hitz egiteko. Udalak ez duela borondaterik agertu.

Abanzeak biltzen dituen berrikuntzarik aipagarrienak honako hauek dira:

— Hondartzza aurretik malekoi bat izango da eta, segidan, 100 metro zabaleko parke. MOPUk hartu du hori egiteko konpromezua.

— Gaur egunekoplaia txikia eta ondoko merenderoaren inguruan kirol portua egingo da.

— Dato inguruko lurretan pizsina naturala egingo da.

— Kanpina txikiagoa izango da.

— Etxeak eraiki ahal izango dira, dentsitate bajuarekin, bi inguru ezberdinietan.

Abanzearen lehen onarpena prozesuaren hasiera baizik ez da. Onarpena boleitinean argitaratzen denean, herritarrek hilabeteko epea izango dute proiektua ikusi eta sujerentziak aurkezteko.

Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tfnoa: 13 07 73

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonoa: 13 42 64

Shock!

I L E A P A I N D E G I A
E S T E T I K A

Oa, 1 13 22 77 ORIO

Adjudikatu da dagoeneko Orioko historia aztertzeko beka

Udalak, Kultura Batzordearen bitartez eta Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz, Orioko historia aztertzeko egindako beka-deialdira lau proiektu aurkeztu ziren eta epaimahaia erabakia du dagoeneko nori eman beka hori.

Epaimahaia (Kultura Batzordeko buruaz gain, Eusko Ikaskuntzako hainbat kidek osatua) urtarrilaren hasieran bildu zen eta, aho batez, beka Marta Trutxuelo gazte andoaindarri ematea erabaki zuen, aurkeztutako proiectuen artean berca onena zela iritziz.

Beka 2.000.000 Ptakoa da eta Martak bi urteko epea izango du lana burutzeko. LANA euskaraz egingo du.

Litekeena da lana egiteko Martak hainbat herritarren gana jo behar izatea informazioa edota dokumentazioa eskatzeko. Herritarrei, beraz, laguntza eskatzendie Kultura Batzordeak.

Behin bukatutuikoan, lan hori argitaratu eta zabaltzeko asmoa du Udalak.



Garaiz kanpo gabiltzala jakin arren, interesgarria iruditu zaigu Gabonetako lehiaketaren saridunak alpatzea. Argazkian irabazleak ageri dira

II. Gabon kantu, jantzi eta jaiotzen lehiaketako sarituak

Eguraldi txarra zela eta, Urte Zaharrerako atzeratu zen Gabonetako lehiaketan, bost taldek parte hartu zuten. Hona hemen saritutakoien izenak.

Argazkian azaltzen diren Manex eta Itziar Barrenetxea, Joseba eta Ainara Oilden eta Lander Sarasola izan ziren garaileak, 21,5 puntuarekin Talai-Mendi Elkarteak antolatutako Gabonetako lehiaketan.

Bigarren postuan, Lore Berasaluze, Eli Manterola eta Ainhoa Loidi geratu ziren 20,5 puntu lortuz.

Hirugarrenak, Zigor Esoain, Ainhoa eta Alex Mateo eta Mireia Esnal izan ziren 19 puntuarekin.

DORRONSORO
Janaridenda

ABESLARI, 3

TELEFONOA 83 09 37

**MAPFRE, S.A.
ASEGURUAK**

Eusko Gudari 44 A behe
Telefonia: 13 37 20

ERRUSTA
taberna

Kriston bokadillok!!

Koasta
Taberna

Lasaitasuna
eta
giro ona

Dantza ikastaroa helduentzat Talai- Mendik antolatua

Fandango eta arin-arin dantzak ikasi nahi dituenari aukera polita eskaintzen dio Talai-Mendi Elkarteak.

Dagoeneko hasia da haurrentzako ikastaroa, herriko ikastolan. Ensaioak, lanunbatero izaten dira arratsaldeko lau t'erdietan.

Orain, helduekin hasteko asmoa dute, beraz nahi duenak izena eman behar du ikastolan, haurrek ensaiatzenten duten egunetan.

Eguna eta ordua, apuntzen diren guztien artean erabakiko da.

Ikastaroa doan izango da.

Duela 111 urte jaio zen Juan Zaragueta

1883ko Urtarrilaren 26an jaio zen Orion Juan Zaragueta, psikologo eta filosofoa. Beharbada pertsonai hau izan da Oriok eman duen pentsalari nagusietako bat.

Zubiri maisuaren jarraitzaile izan zen gizon ospetsu honek 120tik gora liburu idatzi zituen.



Jugoslavia ohira laguntza humanitarioa abiatuko da

Otsailaren 5ean abiatuko da Jugoslavia ohira, Kostaldeko Udalaren artean bildutako laguntza. Aipatu Udalak honako hauek dira: Aia, Getari, Zarautz, Zumaia eta Orio.

Guztien artean 8.500 kilo bildu dira honakoekin; umeentzako janariak, kontserbak, garbitasunerako produktoak eta orokorrean galtzen ez diren produktoak. Datu gisa, esan behar da, iaz baino gutxiago izan dela aurten bildutakoa, hain zuzen ere 10.000 kilo bildu baitziren.

Jakin izan dugunez, parakaiden bitartez helaraziko zaizkie produktoak, kamioiak ezin baitira iritsi behar duten tokietara.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

argi halogenoak

Eugenio Garmendia

KONTSEILARITZA
- Zerga, lan eta kontabilitatea-
Aseguru korredore tituluduna

Gaurtik aurrera nire bullegoa,
Ibai Ondo kalean

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak...
Telefonia: 83 06 09

Juanjo Olaberria,
Portu Zuzendaria
Orion izan zen

Joan den urtarrilaren 26an Orion izan zen Juanjo Olaberria Gasteizko Gobernuko Portu Zuzendaria eta bilera egin zuen Aia eta Orioko udaleiako eta arrantzale-kofradiako ordezkariekin.

Portu Zuzendaria Orionko barrari buruzko ikerketa egiten ari den taldeak landu dituen bi aukera desberdinak azalpena egin zuen.

Bi aukera horietako bat, betidanik planteatu izan dena da eta, bestea, berriaz, askoz ere anbiziotsuagoa.

Olaberriak beharrezko ikusi zuen gaiari buruz dauzen ideia eta proposamenak bideratzeko implikatutako erakunde guztien artean lan-talde bat osatzea.

Ikerketa-taldea danimarkarra da eta maketa bat presentzen ari da Danimarkan bertan. Baliteke otsailaren amaiera aldera goian aipatutako erakundeetako ordezkariek bidaia egitea haraino, frogak bertatik bertara ikus-teko. Bidaia horretan hango instalazioak eta lan egiteko moduak aztertzeko aproba-txatuko luke.



Urtarrilaren 27ko huelgak erantzun zabala izan zuen Orion

Hilaren 27ko huelga orokorrerako deialdiak oso erantzun zabala izan zuen Orion. Goiz-goizetik aktibitate falta somatzen zen herrian: denda gehienak itxita zeuden, auto oso gutxi zebilen kalean, ez zen azokarik izan...

Fabrika eta tailer gehienak ere itxita egon ziren eta, eguraldia lagun, paseo eta solaserako egun aparta suertatu zen. Orioko pasealekuetan eta inguruko mendietan nabaria zen egun berezia zela, jendeak patxadaz hartu baitzuen eguna, ia-ia jaieguna balitz bezala. Gainerantzean, lasai eta aipatzeko moduko istilurik gabe joan zen huelga-eguna Orion.

Telebista eta irratietako notizien arabera, argi dago Euskal Herri osoaren antzeria jokatu genuela oriotarrok.

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.
**2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garajeak**

Kelq. 9

Tlfnoa: 93 61 44

Orlo 20610



ARDATZA

Eusko Gudariak, 7


Tlfnoa: 83 10 88

TALAI
AHOLKULARIAK, S.L.

A S E S O R I A
F I S K A L A , L A B O R A L A ,
J U R I D I K O A , K O N T A B L E A

Iñaki Olariaga Larrañaga

Esko Gudari, 44A-behe
Tlfnoa.-Faxa: 13 37 20
ORIO



Arraunlari aldaketak aurtengo denboraldian

Gozz hasi dira Orioko arraunlariak lanean denboraldia prestatzen. Aurten, gainera, nobedade batzuk ere izango ditu J.L. Kortaren agindupean arituko den taldeak. Sei arraunlarik utzi egingo dute: Franzisko Zabala, Alex Esnal, Joakin Amilibia eta Igor Esnalek hain zuzen. Hauez gain Mundialak prestatzen ari diren beste lau daude: Ibon Urbieta, Jon Salsamendi, M. Anjel Lizarralde eta Mikel Orbañanos; eta gerta daiteke aukeratuak izatea Espanako selekzioarekin bertan parte hartzeko.

Berriak ere etorri dira taldea osatzera, hauek dira: J. Antonio Olaskoaga "Aizperro", Josu Sukia "Lizargate", Josu Vázquez (usurbildarra), Fermín Francés (donostiarra), Kaikuko Pablo (Leongoa) eta Ilunbeko Juanjo (donostiarra). Hauez gain, jubenilak ere igoko dira nagusien taldera.

PATXI

Telefonoa: 83 18 37



ORRAZKERAK
TFNOA. 83 12 61

URAITZ

LURRINDEGIA

KIROMASAIA

ESTHETICIEN

ENDAIA 3 TFNOA. 83 18 97

ITURAIN
okindegia

Aritzaga

83 08 28

"Euskaraz gazte"
izango da beisbol-taldearen sponsorra

Aurten sortu den Orioko beisbol-taldeak —"Orioko Bate Bizkorak" izena hartu duena— badu dagoeneko sponsorra: "Euskaraz gazte" programa.

Euskara Batzordeak beisbol-taldeak aurkeztu zion proposamena onartu egindu eta, hortaz, hemendik aurrea "Euskaraz gazte" programaren logotipoa eramango dute beisboleko neskek elastiko eta biseretan jokatzen dituzten partidu eta entrenamendu guztietan.

Horrez gain, beisbol-taldeak guztiz euskaraz funtzionatzeko konpromezuia hartu du sponsorizazioaren truke eta, beraz, euskaraz egingo ditu partidu eta entrenamendua, kartelak, fitxak, gutunak, aurrekontuak eta abar.

Taldeko arduradunen hitzetan "Euskaraz gazte" programari beren apoio-osoia eman nahi diote eta horrez gain, beisbolaren munduan euskara zabaltzeko ahalegina egin nahi dute.

Euskara Batzordeak oso begi onez ikusi du taldearen iniziatiiba.

Antilla
Jatetxea

Eguneko menua, karta,
pintxoak...

Tfnoa: 83 07 50

GURE TXOKO
TABERNA

ARITZAGA KALEA

Arraun Elkarteko medikua "fitxatu" du Banestok


Azken bi urteotan Orioko Arraun Elkarteko medikua izan den Guillermo Cuestak kluba utziko ote duen zabaldu da arraunlarien artean.

Guillermok ezin izango du seguruenik bere lana lehen bezala bete eta horren arrazoia honakoa da: Banesto, ziklista taldeak, dei egin dio beraiekin aritzeko.

Noski, zorionak eman behar zaizkio eskaintza horrek garrantzi handia baitu kirol-medikuntzan dabilen edonorentzat, nahiz eta, bestalde, Klubak asko sentitu joatea.

Arraun Elkarteko kideek estima handitan zuten mediku gazte honen lana, beti prest egon baitzen laguntza emateko.

Berari ere gogorra egin zaio joateko erabakia hartzea, hemen lagun asko ditu eta. Hala ere, itxura denez, segitu nahi du nolabait Arraun Elkartearekin 1an egiteneta. Toshack-en tankean bi lanetan batera egiteko ahaleginak egingo ditu: alde batetik Banestoko txirrindulari-taldearekin eta, bestetik, gure klubarekin.



Kukuarriko II. Ibilbidea mendiko bizikletaz, otsailaren 27an

Kirol Antolakuntzeta Orioko Komiteak, mendiko bizikletazaleentzat proba bat antolatu du datorren otsailaren 27rako. Bertan hamalau urtetik gorako zaletu guztiek parte hartu ahal izango dute. Ibilbideak, guztira 22 km. izango ditu, eta goizeko hamarretan hasiko da.

Irteera, udal-kanpinaren ondoko aparkaleku izango da. Parte hartu nahi dutenek nahikoa dute bertan izena ematearekin proba hasi baino lehen. Federatuek 500 pezeta ordaindu behar dute, eta gainontzeakoek 1.000 pezeta.

Parte hartzen dutenen guztientzat hamaiketakoa izango da eta ondoren bizikleta-materiala zozketatuko da.

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: Arrain zopa

Eusko Gudari, 29

Arrain eta haragi erreak

Tfnoak: 83 00 05
13 25 32

BORDATXO
Taberna

■ 13 30 14

TXOMIN
ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42

Tfno: 83 27 47

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ■ 83 07 84
Alta Letxundi, 6 ■ 13 33 01

Pedro Fernandez

"Makal xamar gabiltza aurten, baina emango diogu buelta"

Elkartea sortu zenetik dozena bat urte pasata gero, iazko denboraldian ekin zioten Orioko Futbol Taldekoek erregionaleko maila seniorrari, eta lehen mailara igotzea lortu zuten. Pedro Fernandez presidenteak dioenez, aurtengo helburua mailari eustea da.

Zer moduz doakizue da-goeneko erdira iritsi den denboraldi honetan?

Azkenaldi honetan gorabehera batzuk izan ditugu, baina, esan behar da orohar ondo ari garela. Erregionalekoak sailkapenaren erdialdeko postutak daude; jubenilak ondo, seigarren; eta kadelek, berriz, oso ondo hasiziren baina, momentuan beherakada txiki batean daude. Hala ere mailazigoko direla espero dugu.

Erregionalekoak zer moduz ari dira moldatzentzen maila berrian?

Maila-aldeketa antzeman



dugu, noski, baina ez gara gaizki ari, nahiz eta iazko batzuk soldaduzkan egon, beste batzuk lesionatuta eta abar. Aurreneko urtea izateko lehenmaila honetan itxuraz gabiltza.

Datorren urterako ze itxaropen dituzue?

Oraindik ez dakigu. Lehendabizi, soldaduzkan daudenek itzuli egin behar dute, eta oraingoak taldean

jarraitu, eta jubeniletako batzuk igoz gero, talde txukuna osa dezakegu. Oraingoz gure aspirazioa mailari euste da. Beraz, lesionatuak kenduta, soldaduzkako biak, eta hiru jubenilak izango ditugu datorren urtean. Badugu, ordea, konpondu beharreko arazo bat, lehen maila honetan entrenatzeko, entrenatzialeak titulua behar dute, eta gure entrenatzai-

leak, —anaia Clementek— ez du agiririk. Seguru asko kanpokoren bat ekarri beharko dugu, eta honek, jakina, kontu ekonomikotan sartuko gintuzke.

Hain zuzen, ekonomikoki problemarik ba al duzue?

Denok bezala ekonomikoki gora-behera batzuk baditugu, baina, egia esan, ezin gara kejatu. Bazkide gehiago izatea lagungarri izango litzateke. Zelaian jarrita, publizitate-kartel dexente dauzkagu, etakamisetetako esponsorrak ere baditugu. Bat oso fuertea, erregionalekoa, eta beste biak, gazteen mailakoak izateko, ondo ordainduta daude.

Udalaren aldetik nolako laguntza jasotzen duzue?

Ez dugu inongo kejari. Are gehiago, alkatearen bittarte lortu genuen erregionaleko esponsorra, eta gustura gaude. Tira, esate baterako, badugu arazorik konpontzeko dauzkagan dutxekin. Esan digute da-goeneko aurten udalaren laguntzamurritz ugingodela, baina ulertzen dugu ez dela inoren kapritxua, eta honela onartu behar dugu.

ASEGURUAk

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3 · 1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO

ZASS

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

Kadera baten gañean

Amona Trekuren kantak bilduz joan de urtean hasi genuen lanari jarraituz, oraingo honetan "Kadera baten gañean" izeneko kanta ederra aukeratu dugu eta hemen eskaintzen dizuegu doinuaren partitura eta guzti

Kadera baten gañean txo-txo,
kadera baten gañean.
beste kadera motxa daukazu
arri otzaren gañean;
onezkero kantzau zara eta
bestera bira zaitean.

Aidean doan egazti batí
begira egondu naiz egun:
ongi begira ni egon arren
etzuen ezer ezagun;
gabiraiak oilaskoak janta
auzoak paga dezagun.

Gabirinak bezala badira
azeri-basakatuak
ikusi dituztenak badira
biak lepotik lotuak,
kukurruku bat etzuen jotzen
oilar madarikatuak.

Kontzientzia egin bear da
deklarazioa zuzen,
ori orrelaxe baldin bada
beste (y) aldera goazen
gabirin ori jateko ere
anizara (y) adinbat bazeen.

KADERA BATEN GAÑEAN



HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

RAMIRO

ARGAZKIAK

T 83 10 48

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bideoak
LPak, CDak eta zintak

Izarra Atorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

**OLIDEN
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

Izarra

Arrantza: zer hintzen eta non hago

Benito Lertxundik Zuberuko herria ezagututa minez esandako hitzak dira niri arrantza eta arrantzaleen egoera ikusita bururatu zaizkidanak: zer hintzen eta non hago. Itsasoa izan da hainbat oriotarrentzat lanbide eta bizimodu, baina azken urte hauetan gauzak ez doaz oso ondo. Arrantzak behera egin du eta arrantzaleak ez dira baikor azaltzen etorkizunari begira.

ANA ITURAIN

Eta orain, zer?

Arrantzale batek esan bezala Kantaun itsasoabera tsatsa da, gure aurrekoek hemendik jan dute, guk ere bai eta baita gure ondorengoeck ere, itsasoaz zainduz gero.

Denok dakigu itsasoak oso urte onak izan dituela: 1970. urtearen inguruuan euskal arrantzak denboraldi bikainak ezagutu zituen.

Egia da egun horiek iritsi baino lehen arrantzaleek bizimodu gogorra ezagutu zutela. "Ni umea nintzela hasi nintzen itsasoan, berrogei urte daramamakizkit lan honetan, eta neguan ere arrantzara joaten ginen, antxua harrapatzan zen, arrai gehiago baitzegoen. Baina gu ez ginen ostiraletan etxeratzen larunbaretan baitzik, eta jai gauerdiari itsasora berri" dio Juan Urkizuk.

Pixkanaka, egoera hobetu egin zen eta oriotar asko hasi zen itsasoan 70eko hamarkadan, urte onenetan. Orduan Orion 28 bapore zegoen eta ia 500 arrantzale. Herritarren zortziak bat (emakume, umi eta alton-amonak barne) itsasoan zebilen.

Batzuk —tokatu zi-tzaienak— Azoreetara joan ziren eta beste batzuk Mediterraneo eta hego aldera. Bukaeran zer edo zer egin zuten, gastuak kubritzeko adina. Dena den Manuel Biraolak esaten duen bezala "oso asunto txarra da, harrapatu egiten dugu, baina pagatu ez, eta harrapatzeko tokirik ere ez dago. Hara eta hona eta denekin borrokan".

Orokorean esan daiteke azken urte hauek oso txarrak izaten ari direla arrantzarako, ikusi besterik ez dago bapore-kopuruak behera egin duela modu ikaragarrian. Lehen esan bezala, Orion 28 itsasuntzi zeuden, eta orain 16 besterik ez da geratzen gure herrian.

"Lehorrean lana egongo balitz, itsasoan inor ez litzateke ibiliko" dio Julian Muñika "Itxaspe" k eta Biraola-

ren erantzuna: "Arrai gehiago harrapatzuko balitz, jendea itsasoan ibiliko litzateke, lehen jendea itsasoan ibiltzen zen eta lehorrean lana bazegoen".

Beherakada honen arraioa bilatzen hasita, denek bolantak eta sare pelajikoak aipatzen dituzte.

Bolantak eta sare pelajikoak

Sare pelajikoak, altura ezerdinietan jartzen diren sare luzeak dira, ur azalean jartzen direnak, eta arraina mailatu egiten da han. Attrasterrock erabiltzen dituzte, Atlantikoan jarri eta arraina ez da horta alegatzentz.

Bolantak berriz, itsasoan lagatzen diren sareak dira,



Arrantzaren krisia, denon krisia da Orio bezalako herri batean



"Hemengo kontserberoek frantsesek ekarritako arraina erosiko ez balute, hauk ez lukete hainbeste harrapatuko"

libre uzten dira eta min han-dia egiten dute.

Momentu honetan Elkar-te Europarrak Frantziako 37 baporeri bost kilometroko luzera eta 200 edo 300 metroko sakonera duten sareak erabiltzea uzten die, eta hara iristen den guztia harrapaten dute. Beste 200 bapore daude bi kilometro t'erdiko sareak ibiltzea daukatenak. Berez, hau nahiko grabeada, baina arazo da bi kilometro t'erdikosarekin ibiltzea ez dela rentablea, arraiak bi kilomeiro t'erdil eskipatu egi-tzen dituelako. Orduan, 30, 20 edo 10 kilometroko sareak erabiltzen dituzte. Arrainak kriston pareta topatzentzu, eta orduan buelta ematen du eta ikasi egiten du beste tokitara joaten. Horiek debekatu-tua daude, baina hori ez da batere kontrolatzen, eta frantsesek sare horiek era-biltzen jarraitzen dute.

Sare pelajikoekin lan egi-teko jende gutxiago behar da, Frantziako baporeak adibidez bost edo sei lagu-

nez osatuta daude, eta he-men berriz, hamaika bat la-gun behar izaten dira bapore bakoitzean.

Juan Urkizuk esan digunez: "Pelajikoek, gauez lan egiten dute, eta hurrengo egunean ez duzu ezta arrai ale bat ere harrapatuko. Eta aurkitzen dituzunak ikaratu-tua daude, bizkarrean mar-kak dituzte saretik ihes egin nahian ibili direlako. Bapo-re hauek egunec geldirik egoten dira, kañaberoak la-nean non ari garen kontro-latzen, gero gauean hara

joateko, eta ahal duten guz-tia harrapatzeko". Hau dela eta, hainbat gora-beherak izaten dituzte bere artean. Honen lekuko beste arran-tzale batek esandakoak: "Sare pelajikoak erabiltzen dituztenei frenetegitera joaten hazara iskanbila handiak sortzen dira. Orain dela hiru urre Aita Guriakoak horretan zebiltzan sei, zazpi baporeri kontra egitera joan ginuen, eta bengalak eta da-nenek bota ziguten".

Sare pelajiko eta bolantak erabiliz gero, urte gutxitan

itsasoan ez da zer harrapaturik izango. Dagoeneko ha-siak dira talde ekologisten kanpainak bolanta hauen aurka, baita Frantzian bertan ere.

Estatistikak oso ondo adierazien dute sare hauek egiten duten mina. 1993an, 1.574 izurde, 170 hegazti eta chun dorioka harrapatu dituzte sare luzeegiak erabiltzeagatik, eta baita harrapatu nahi ez zuten bestelako 184.370 arrai. Gaineratu behar da, ez dietela bakarrik babeslutzako espeziei mina

	1970	1980	1990	1993
Baporeak	24	26	22	16
Arrantzaleak	450	400	382	287
Irabaziak (pta.) (atuna eta antxua)	400.000	800.000	1.200.000	1.350.000
Bapore bakoitzeko atun harrapaketak (kilotan)	50.000	80.000	90.000	112.500
Atunaren prezioa (batzaz bestekoa)	56	180	280	310

egiten, atuna bera ere zaurituta ateratzen da, eta horren ondorioz bere kilitatea jeitsi egiten da. Bestalde, harraputako % batetikzortzira galdu egiten da sarea igotzerakoan.

Guzti honetaz gain, 1984etik, gero eta han-diagoa da harrapatzenden atun txiki kopurua (bi eta lau urte arteko), honek dikanren galerarekin.

"Frantsesek lehen urraburua eta lupiak harrapaten situzten, baina orain ez dago ezer. Lupiak harrapatzeko, sarea botatzen zuten eta sardin pilat ederra harrapatu ere bai, baina lupia besterik interesatzen ez zitzalelako sardinak berriz itsasora botatzen situzten. Sardin hilak" esan digu Juan Urkizuk.

Datu hauetik ikusita, gero eta jende gehiago dago arrantza-modu "moderno" horien kontra. Elkarte Europarraren aholkulariak ere, bolantak debekatzearen alde daude. Dena den, oraindik ez da erabakirik hartz.

Zer gertatuko da etorkizunean?

Inaki Sarasuak esan digun bezala, egoera kezkagunia da, eta etorkizuna ez da garbi ikusten.

Kofradian galdetuta zein izango den gure egoera aurera begira, hauetik dira Inaki Sarasuak adierazitakoak:



"Orain nahiz eta neguan itsasora ez joan, lana egiten dute

ratu egin zen. Batzuek esan

dute martxoan hartuko dela,

baina inork ez daki erabakia

noiz hartuko den."

"Garbi dago 300 edo 400

bapore ateratzen badira era

horretan arrantzaz egitera.

**"Sare pelajikoak jarriko
bagenitu, bi urtetan
itsasoa garbitu egingo
litzateke"**

*hemengo baporeek ez du
tela zer eginik izango.*

1996. urtean, Espainia Komunitatean sartuko da besteak baldintza berdinak, eta bi arazo sortzen dira. 1996ra arte nola iritsi eta ordundik aurre-zaein egoeratan egongo garen. Hor dago arrantzaleen kezka.

Orduan kupoak denontzat egongo dira, baina akzesoa libreak izango dira. Komunitateak esaten duen tokietara joan beharko dugu, baina arau horiek denontzat izango dira, ez guretzat bakarrik.

Momentu honetan Azoreetara joatea restrinjitu da. Orain arte Euskal Herritik 15 bapore joateko eskubidea izan dugu, eta hori oso gutxi da, baina Azoreetako gure modalitatekoak joatea interesatzen zale, eta hori da gure abantaila.

Han bolanta eta sare pelajikoekin sartuko balira, txikitu egingo lukete, beraz nahia dute kañaberarekin harrapatzenduteneak joatea. 1996an kañaberantzako lagako dute, denontzako, baina kañaberantzako".

Pentsatzerik ez dagoena ere, denok bolantak jartzea da. "Guk ere horrela jartzea bidauskagu eta momentu batean guk ere pentsatu beharko dugu zer egin behar den, baina guk ere horiek erabilitako bagenitu, zenbat denbora aguantanuko luke Kantauri itsasoak?"

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26

ertza

USAINEGIA

El Salvador: hamaken harana

IKER

Berriz ere, Euskal Herriko Unibertsitateak duen hitzamenaren bitartez, Ertamerikara joateko aukera izan dut, kasu honetan El Salvadorra. Orain dela gutxi arte, herri txiki hau, ezezaguna egiten zitzagun, baina azken urte hauetan jasandako gerra eta lortutako hakearen ondorioz, zerbait badela jakin izan dugu. Bertara iritsi bezain pronto konturatutu nintzen hirugaren munduan nengoela. Hasieran Nikaraguaun egon nientekeela iruditu zitzaidan, bai paisala eta baita bertako jendearen itxura ere berdintsua baita. Baina egun gutxitara, bi herri horien artean desberdintasun nabarmenak daudela ohartu nintzen.

Garai batean El Salvador ekonomikoki Ertamerikako punta-puntan egon zen, baina hasteko, Honduraskin izandako gerra, ondorengo ia hamar urte iraun zuen barneko gerra eta bien bitartean izandako lurrikaren eraginez, lur jota utzi dute herri hau. El Salvadorrek 20.000 km² besterik ez ditu; beraz jendez gainetza dagoen herri bat da. Hala ere, sei milio horietatik, milio bat pasatxo Estatu Batuetan dago. Emigrante hauek lan bila joan dira, normalean ahaide gehienak El Salvadorren utziz. Ondorioz, egindako lanaren truke lortutako dirua familiari bidaltzen diote. Eta hona hemen harrigarriena: Estatu Batuetatik langile hauek, nahiz eta gehienetan gaizki ordainduak izan, bidaltzen dutenditrukopurua, El Salvadorren bertan produzitzenden diru guztia baino gehiago da. Pentsa zer egoera eta zer etorkizun ikus daitekeen.

Politikoki ere gauzak nahasi sarrak daude. Bake simaduraren ondoren, martxoan hauteskundeak izango dira. Hemen bezala, han ere zenbait partidu



J. F. Lukas Mujika
Irakaslea

aurkezten dira, baina bi dira nagusi. Lehenengoa, gaur egun eta azken urte luze hauetan boterean dagoen ARENA. Alderdi hau, El Salvadorreko betiko hamalau familia aberatsenek kontrolatzentzen dute. Ejerzitoa beraien menpe dago, produzitzen den kafe gehiena beraiena da, gainontzeko enpresa gehienak bezala, eta dirua barra-barra daukate; ondorioz prestatzen ari diren kanpaina oso ona da (mundu guztiko aholkulariak dituzte). Dirudienez, alderdi honetatik sortu ziren hain ospe txarrekoak diren "Los escuadrones de la muerte". Hauek, gerra garaian populazio osoa beldurtuta izan zuten eta oraindik ere tarteka azaltzen dira. Esate baterako, han egon naizen bitartean hauteskundeetarako hautagaiak ziren FRENTeko bi komandante ohi akabatu zituzten, Ofizialki, bati buruz, nolabait hilketa justifikatzeko (?), drogazalea zela eta HIES (SIDA) zeukala esan zen (inork inoiz ez zuen horrelakorik ikusi eta herriak ez zuen sinistu). Besteak berri, ni egon nintzen unibertsitatean irakasle zena, gaizkile batzuek akabatu zutela sinistarazi nahi izan zuten. Taktika honekin, hauteskundeet begira, populazioa ikaratu egin nahi dute eta egia esan lortu ere bai.

Bigarren alderdia gerrillan ejerzitoaren aurka ibilitakoek osatzen dute (FRENTEa). Hala ere, FRENTE hau koalizio bat da, 5 alderdi differente osatutik. Koalizio honek diru askorik ez du, baina bestalde izugarrizko ilusioa, itxaropena eta lana egiteko gogoa ikusten zaie, herrian sinisten baitute. Hala ere, hauteskundeet begira eta kontutan izanik alde batetik ARENA alderdia egiten ari den kanpaina garestia eta bestalde El Salvadorren dagoen alfabetatugabeko potentzia handia inork ez daki zer gertatuko den hauteskundeetan. Kontutan izan, hemen askotan zenbait botu erraz eros badaiteke, han mila aldiz errazago dela. Hortik atera kontuak. Gainera, eta hau da nire ustez Nikaraguarekin konparatuz politikoki eta sozialki gaur egun duten differentziarik handiena, ez da inoiz boterean Sandinismoa edo antzokorik egon, beraz, ez dakite hori zerizan daitekeen eta zer onurak ekar ditzakeen.

Esaten denez, gerra baten ondoren beti delinkuentzia handitu egiten da. El Salvador ez da salbuespena izan. Edozein mutil koskorrek labana edo pistola segituan ateratzen dira dirua edo baloreaduen edozer eskatuz, gehiegiz importa gabe akabatu behar bazaitu ere. San Salvador hiriburuan adibidez, gauzak inork ez du bere autoa semaforo gorrian gelditzen bada ez bada ere.

Bukatzeko zera esan nahi nuke, herri hau nahiz eta egoera larrian egon, itxaropenetsu azaltzen dela eta langileak direnez, aurrera atera daitezkeela beste herriek laguntzen badiegu eta ez oztopatu zenbaitek oraindik ere egiten duten bezala. Kontutan izan hala eta guztiz ere hango inori ez zaiola inoiz falta irrifarra ahoan.

Mirentxu Campos

Abertzalesuna berregiteko taldeko kidearekin solasean

"Tolerantziak, elkarrekin konpontzeko joerak eta abertzalesun demokratikoaren berrikuntzan egin diren ahaleginek izan behar dute lehentasuna kultura politiko berrian". Horrela dio sortu berria den abertzaleak plazaratutako agiriaren puntu batek. Agiri hori Xabier Lete, Euskitze, Txaro Arteaga eta beste 26 euskaldunek izenpetu dute. Horien artean oriotar bat ere badago, Mirentxu Campos. Guk bereganjo dugu talde horren berri jakiteko asmoz. Elkarrizketa Donostiako Santo Tomas Lizeoan egin diogu, bere lantokian.

IÑAKI ITURAIN

KARKARA: Zertarako sortu da talde hau?

MIRENTXU CAMPOS: Abertzalesun demokratikoaren inguruari betidanik mugitu geran artean elkarrizketa bideak sortzeko asmoz bildu gera. Beti arazo berdinaz hitz egiten degu, krisi ekonomikoa, langabezia, gazteriaren problematika, Euskal Herriaren kokapena eta norabidea, euskeraren normalizazioa, etab. Baina beti lagunekin, gure taldekoan, eta beti gauza bera esanez bukatzen degu, gauza guztiak oso gaizkidoazela. Etauste degu, kezka hauen inguruari, abertzalesunak zer esana badaukala. Elkarrekin hitz egiten ikasi behar degu, helburu berdinak non dauzen aztertzetik eta ez differentsiak azpimarratuz.

K.: Nola sortu da?

M.C.: Bada garaia esaten deguna ekintzetara pasatzeko. Orduan batzuk hizketan hasi ziran taldea nola eratu eta bakoitzak deitu zuen be-

rari ondoen iruditzen zi-
tzaina, eta horrela joan da
zabaltzen.

Garbi esan behar da ez
dala partidu batek bultzatua
izan, inondik ere. Esaten ari
dira EAJ-k asmatutako zer-
bait ote dan, danak berega-
natzea, baina ez da horrela.
Alderantziz, guk partiduen
arteko elkarrizketak sortu

behar ditugu; bereizten gai-
tuena azpimarratu beharrean,
berdintzen gaituena bultzat-
tuz.

**K.: Danak gipuzkoarrak
zerate oraingoz, zergatik
hori?**

M.C.: Ez da Gipuzkoako
gauza bat, gure helburua
Euskal Herri osoa da eta as-
moa ate guztiak zabalik uz-

teko. Egia da hemen sortu
dala, beharbada gehiago ge-
ralako idea hori praktikan
jartzeko prest gaudenak,
beste sensibilitate bat dago-
elako, edo gehiago hitz egin
degulako, ez dakit.

**K.: Herri Batasuneko
jenderik ez dago, zergatik
geratu dira kanpoan?**

M.C.: Nik uste det HB-k
ere sartu egin beharko luke-
ela. Baina bada diferentzia
bat HB eta beste partiduen
artean, eta handi samarra
gainera, biolentzia. HB-k
ETA-ren jarrera defenditu
egiten du. Hori bukatzen
bada, eta nik uste bukatuko
dala, bukaera hori sumatu
egiten da eta, orduan HB-k
ere izango du bere leku.
ETA-k eginkizun garran-



"Askolat susmekin eta aurreiritziekin jokatzen dugu eta horrek bukatu egin behar da"

tzitsua bate zuen, baina gaur egun ezinezko da hola segitza.

K.: Elkarritzeta eta komunikazioaren kultura bultzatu nahi dezu, baina ba al dezue beste helburu amankomunik, independentzia, pakea, ...?

M.C.: Lehen esandakora joko det, pakerako bidea jorratu behar degu, elkarritzeta bideratu, hitz eginez arazoak kompondu. Hori da gure helburua, eta horrekin dana esanda dago, besterik gabe.

Orain arte partiduak, bakoitzak berea egin du, eta itxi egin dira. Udaletxean-eta lana egin izan degunoi gertatu zaigu, "aizu, baina honetan ados ez ote gaude?". "ba ez, idea horko horiena da, horiek planteatu dute eta orduan ez". Susmoekin eta aurreiritziekin jokatu degu askotan; eta hori puskatu egin behar da, nolabait. Momen-tu honetan lana ez badegu alkarrekin egiten, nik uste det gauza guztiek porrot egingo dutela.

K.: Partiduak porrot egin al dute bide horretan?

M.C.: Politika egiteko partiduak beharrezko dira. Nere ustez Euskal Herrian gehiegia sakabanatuta daude eta horrek indarrak galtzea dakar, eta arazoei aurre egiteko eragorpena da gainera. Nik ez det uste porrot egin dutenik, beharbada beste bide batzuk egin behar dituzte. Europara eta mundu



"Pakerako bidea jorratu behar da, elkarritzeta bideratu"

"Abertzaleon artean batzen gaituena bultzatu behar degu eta ez bereizten gaituena"

guztira begiratzen badegu ikusten da gauza guztiak aldatzen ari dirala. Guk uste genuenabetirako izango zala zalantzan jartzen da; eztabaidak leku guztieta, eta Euskal Herrian ere hori geratzen ari da.

K.: Zu kontzejal izana zera Orioko Udaletxean. Urte batzuk pasa ondoren nolako ikuspegia dezu?

M.C.: Nik lau urte eman nituen eta denbora gutxi da, hasieran dana berria da eta ezagutu bitartean denbora

joan egiten da. Baina lana egin genuen, lan dinamika bat sortu genuen gainera, helburuak finkatuz, autoretratik egindako lanari jaunraipena emanez. Lan hori neketsua da, baina orain esan dezaket oso oroimen polita dedala. Beste ikuspegi bat lortzen dezu herriarena. Harremanak ere asko landu nituen, beste partiduak etab. Saitu nintzan besteen arrazoiak entzuten. Diferentziak bazeuden, adibidez HB-rekin, baina saiatu nintzan haietan asko hitz egiten, beraien ulertzeko eta gurea ulertarazteko.

Penarik handiena daukat egin gabe utzitako gauzengatik.

K.: Gaur egun nola ikusten dezu herria eta Udalaren lana?

M.C.: Gauzak egiten ari dira eta lanean ari diran neurriari, hori ondo dago, eta neri bhinipin gustatu egiten zait. Gero kritika egitea oso erreza izaten da, eta nik nahiko izaten det kritika behar dan lekuaren egitea; halako arlotan arazo hau ikus-ten det, ba han hitz egin, eta hantz ere parte hartu. Ze oso erreza da esalea «hau oso gaizki dago» edo «hau ez da egiten», baina hori ez da nahiko, iritzia eman behar da zer egin eta nola; kritikak lagungarri izan behar du, eraikitzeko; eta lanean ari danarentzun egin behar zaio zergatik egin duen horrela edo zergatik ez duen egin.

daddy

BAKERO, NIKI,
KAMISETA, JERTSEAK...

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO

Goxoki

Gozotegi-Kafetegia
AZKUE

Eusko Gudari, 33 tlfnoa: 83 39 20



Orioko komunikazio-arazoak: autopistako enlazea

Komunikazioa da eboluzioaren eta modernitatearen elementu nagusienetako bat hiri, eskualde eta —nola ez— herrientzat.

Orioko herria, kostaldeko errepidean kokatua, hiriburutik hurren eta komunikazio-lineez gurutzatua, ia isolatuta dago errepidez.

N-I autobideraino dauden 20 kilometro eskasak benetako gurutzebidea bihurtzen dira ordu eta egun gehienetan. Orior batek, esate baterako, Beasaindar batek adina denbora behar izaten du Donostiarra iristeko eta Beasain Donostiatik 45 kilometrora dago.

Harrigarriena, ordea, zera da: herriaren erdigunetik oso hurren

Bilbo-Behobia autopista pasatzen dela eta autopista horrek ez duela akzesorik Oriorik. Donostiarra autopistaz joan nahi duen oriotarrak, Zarautzeraino joan behar du eta, ondoren, Orio gainetik pasa hiriburua bidean.

Kontutan hartzen badugu CN-634 errepidetik egunero hamarmila ibilgailutik gora pasatzen dela eta bariantea egin arte oraindik denborra dexente pasako dela, garbi ikusten da, gainera, herriaren kaskoan barrena pasatzen den errepide-zatiak arrisku etengabean jarriten duela kale horretan bizi den jendea.

Aipatutako arrazoi horiek na-

hikoak dira Orioko PSE-EEk ondoren datorren proposamena egin dezan.

Orioko PSE-EE-PSOEk honako proposamena egiten dio Orioko Udalari:

Korporazioak, Plenoan bilduta, honako erabakia har dezala:

«Aginte eskudunei (Eusko Jaurlaritza, Diputazioa) honakoa eskatzea; har ditzatela dagozkion neurriak Bilbo-Behobia autopista Orioko herriarekin lotzeko akzesu bat eraiki dadin.»

● *Erredakzioan itzulia*

ZUMINTZA

- Iteapaindegia • Estetika
- Depilazioa • Sauna

Tfnoa: 83 17 56

ALTXERRI
Jatetxea

Telefona: 83 07 62

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO MATERIALAK

ANTONIO ALONSO S L

- Gres eta azulejuen erakusketa
- Komuneko eta sukaldeko altzarien erakusketa
- Sukalde ekonomikoak

Almazena eta erakusketa
Santiago auzoa
tfnoa: 13 25 33
faxa: 83 57 01

Denda eta oficina
Iturbide, 5
tfnoa: 13 10 88

Andu

Oriotarrak elkar hobeto ezagutzea izan da KARKARAK duen helburuetako bat, eta, honi eutsiz, sail berri bat zabaldu nahi dugu gure baserri eta bertan bizi diren oriotarren gauzak kaletarroi erakusteko, hain urrutia eta, ordea, hain gertu diren bi mundu parez-pare ipini, geroz eta gehiago aldatzen ari direnean.

ANA G. DE TXABARRI

Eta aldaketaz ari bagara, zer esan aurrena izateko aukeratu dugun baserri honen izenarena. Orain dela la mila urte Agandidura leku-tzena aurkitzen dugu kronika zaharbatean, orain dela laren-hun Agandidura du eta Arandutik Anduraino auskalo zein bide sekretuak eragin duen simplifikazio lan hau. Andu izango da seguruenik, Orioko baserrirrik zaharrerentako bat.

Elena Lizaso eta Patxi Lertxundik betiko irripar eta ongi-etorriarekin hartu gaitute lasai-lasai hitz egiteko beregana joan garenean. Harrera honek atzetik ekari duen kontu-kontariko saino ere ez da makal izan, eta, idazterakoan, ez da batere erraza artikulu txiki honetan

zer bai eta zer ez sartu aukeratzea.

Egun, etxe bitan banatua azaltzen zaigu, baina lehen dena baserri bat zen. Denboran atzerago joaten bagara, badirudi handiagoa ere izan zela, gaur baratzak hasten diran mugaino, lafreiluzko arkupe eta guzti. Askotan suak hartu du baita ere, azkena joan den mendean gertatu zen karlista eta liberalen arteko borrokak zirela eta. Patxiren aitona sehaskan zegoela atera omen zuten sugarretatik.

Petsonaia famatuak ere izan ditu baserri honek: Rodrigo de Aganduru bat, 1584an Valladoliden jaioa (aita oriotarra zuen) eta 1626an Andun bertan hil. Filipinak, Japonia, India, Persia, eta mundu zabaldean ibili zen misiolari lanetan, oso nabegante trebea zen eta Kuba eta Terra Ura ere iritsi zen, Orioko alkate izandako beste bat ere bada. Era, nola

ez, denok dugu buruan Anjel Lertxundi «Andu» idazlea, berez Andun jaio ez dena, baina aitaren baserriko izeña hartu duena.

Baserriko lanarekin jarraitzen dute gaur, baina beste ofiziotan ere jardun dira. Aitonak, adibidez, etxe ondoan zegoen harrobi txiki batetik hondar gorria ateratzen zuen fundiziotarako. Patxi bera ere gaztetan jardun zen obretan lanean, Orioko eskola zaharretako etxeán, eta Kukuarriko gurutzea egiten. Anai zaharrena hil zenean, etxeán geratzen baserriko lanetan.

Elena berrogei urtez aritu da Oriora esnea ekarriz, hasieran zaldi karnoan eta joan den udararte bere landroberran. Esnea ez ezik, haragia ere ekartzen zuten herriko mataderora, eta gaur egun Donostiara berdura eta bantzuk ematen jarraitzen du.

Autobidea egin baixo lehen askoz ere jende gehiago

igozen zen Anduraino bertan zegoen dolareko sagardoa edatera. Oso gogoan dituzte, buita ere, Lizargate baserrian egiten ziren S. Martingo festekin, jendetza biltzen zelako hango taberman, berisolarri, trikitixa eta guzti.

Etorkizunaz galdera egiten diegunean bizkarra pixkat jasotzen dute. Beste baserri bafean, Bentan, izaten ziren "bileretan" elkar ezagutu zuten Patxi eta Ele-nak, beste bikote asko bezela, igandero soinu-jole eta guzti izaten ziren topakettan. Gazte jendea haraino etortzen zen Usurbil, Aiaedo Igeldotik. Beste garaia ziren hain zuzen, gaur egun jendeak baserria utzi eta kalera doa bizitzera, hustutzen ari dira gehienak. Baserriak ematen du bizitzeko adina, baina, hori bai, dedikazio osoa eskatzen du. Gustatuko litzake etxeko batetik jarraitzea baina... hori ezin dute beraietik erabaki.



Dunorritako bide zaharrean, Andu baserria beni zabalk egon da orzogunetan

ABENDUAN IAIOTAKOAK

Abenduan ez zen inor jalo Orion

ABENDUAN EZKONDUTAKOAK

Aitor Manzisidor eta Elixabel Pikabea, abenduaren 4ean

Jose Inazio Iturri eta Isabelle Bomboire, abenduaren 4ean

ABENDUAN HILDAKOAK

Julian Peña Manterola, abenduaren 16an, 58 urte

Jose Antonio Orbaizoz Lizaso, abenduaren 22an, 61 urte

Miguel Salsamendi Illarramendi, abenduaren 22an, 78 urte

Juan Carrera Lezeta, abenduaren 24ean, 50 urte

Paca Aramendi Lopez, abenduaren 31n, 81 urte

Zorionak

Erregeen kabalgata

Urtea joan, urtea etorri, jende askok hartzen du parte Erregeen kabalgata antolatzen.

Ardura nagusia Talai Mendi elkartea du baina, guk zorionak eman nahi dizkiogu, ez Talai-Mendikoi bakarrik, baizik eta baita kolaboratzen duten beste guztieiere: jantziekin, zaldiekin, musikarekin, zuziekin, jostaluekin eta abar. Tradizioari eutsiz, guztiun ilusioari ere eusten diotelaiko.

HIZKI ZOPA

E	E	H	T	A	R	I	Z	A	G	A
U	R	M	E	T	A	B	W	X	R	R
S	Ñ	I	T	I	B	F	G	R	R	R
K	P	T	A	I	U	O	K	L	A	A
O	D	K	T	D	N	E	R	T	U	U
G	B	E	G	Y	R	B	E	F	N	N
U	K	E	L	O	N	U	B	E	L	L
D	M	N	A	G	U	S	I	A	A	A
A	K	E	T	A	P	R	B	P	R	R
R	W	T	B	I	A	S	A	E	I	I
I	M	B	X	T	O	P	I	K	L	L
Z	S	A	O	H	J	G	O	R	F	F
R	T	L	T	E	R	D	N	H	B	B
M	E	E	H	J	S	E	D	N	U	U
P	W	A	N	T	X	I	O	L	A	A

Ale honetan, aurrekoetan bezala hamar izen aurkitu behar dira, baina oraingoan Orioko hamar kalerenak.

Zoriotxarrak

Pilak botatzeko zakarrentziak

Aspaldiko urte hauetan entzuten ari gara zakargehiagi sortzen dela eta, horren aurrean, zakarrak bereiztea soluzio-bidea litzateke. Orion bidehorretan hasitako prozesoa, bidrioak bereizteko ontziak jarri geldirik dago aspaldi. Pilak, esate baterako, aparte jasotzea oso erraza litzateke eta oso kutsagarriak dira. Zoriotxarrak, neurri hau hartzeko ahalmena eta ardura izanda hartu ez duenari.



E R R E Z E T A

Txokolatezko tartaleta

(8 lagunentzat)

OSAGAIAK:



Iñaki Iturrioz
Obia jatetxea

Basea egiteko:

- Ogorina. 200 gr.
- Gurina (mantekila). 50 gr.
- Azukrea. 75 gr.
- Gatza. 15 gr.
- 2 arrautz.

Masa egiteko:

- a)
- 4 arrautz
- Azukrea. 150 gr.
- b)
- Txokolatea. 200 gr.
- Gurina. 75 gr.
- Esnea. 100 cl.
- c)
- 6 arrautzen zuringoa
- Azukrea. 50 gr.
- 2 errege-sagar

NOLA EGIN:

Basea:

Ogorina, gurina, azukrea, arrautzak eta gatza nahastu eta masa bat egin. Ondoren, masa hori zabaldu eta moldean jartzen da. Segidan, labea 160 gradutan jarri eta han sartzen da egin arte.

Tartaren barrukoak:

- a) Arrautzak eta azukrea bañomarian harrotzen dira.
 - b) Txokolatea baporean urtu eta esnea eta gurina botatzen zaio. Ondoren, dena nahasten da masa sendo bat lortu arte.
 - c) Beste bol batean zuringoa harrotzen da azukrearekin.
- Bukatzeko, tartaren basearen gainean sagar-xerrak jartzen dira eta a), b) eta c) poliki-poliki nahastuz egin dugun masa botatzen dugu gainera, moldea bete arte. Azkenik, labea 200 gradutan jarri eta han jartzen dugu egiten.



Rafa G. de Txabarri

Heziketa Fisikoko Irakaslea

—*Kirola eta osasuna guztiotzat*—

Iharduera fisikoko programen ezaugarri orokorrak

Orain arteko bi artikuluetan, iharduera fisikoak zertarako eta zergatik egin behar dugun esplikatzen ahalegindu gara. Hemendik aurrera, aktibitate hori onuragarria izan dadin, arau simple eta errazak aztertuko ditugu zuek jarriz ditzazuen.

Lehenik esan behar dut ekintza fisiko edozein programak, nahiz eta denak ezaugarri nagusi batzuk jarraitzen dituzten, **norberariego-kitutakoa izan behar duela**, hau da, partehartzaile bakotzeren ezaugarri eta beharreki egokitutakoa.

Kirolzaleak, iharduera egitarau bat hasten duenean, baldintza batzuk hartu behar ditu kontuan:

- Norberaren egoera fisikoa
- Zer-nolako ekintza fisikoa edo kirola aukeratu duen
- Aktibitate hori eragotzi ditzakeen zenbait gaixotasun (lesio e.a.)
- Aukeran dituen instalazioak
- Aisialdiko denbora

Hasi gaitezen jarraian, iharduera fisiko edozei saio batek izan behar duen egitura jakitera:

BEROKETA: Saioko lehen za-

tia denez, beroketaren bidez gure gihardura, artikulazio, arnasketa eta zirkulazio sistemak pixkanaka martxan jartzen ditugu, gorputzaren sistema guztiak elkarlanean hasten direlarik. Saioaren zati hontan intensitate txikiko ariketak egingo ditugu: estiramentuak, margulkotasun ariketak, oinez ibili,... Gure helburuak lortzeko hamar minutuko iraupena nahikoada. Garrantzi handia oso du saio honek.

SAIO NAGUSIA: Atal hontan landu behar ditugu -gorputzaren ahalmen guztiak taula baten bidez jorratz: indarra, koordinazioa, abiadura,... Taula honen ondoren, aktibitate aerobikoa has genezake bere edozein modalitatean (oinezko ibilaldia, korrika, arrauna, igeriketa, ziklismoa,...). Beroke-tari baino iraupen luzeagoa emanago diogu: hogeitamar bat minutuoa, gutxi gora-behera.

HOZKETA: Beroketaren helburuaren aurkakoa du: gorputza, poliki, bere ohizko baldintzetara egokituko dugu erlajazio ariketak eginez, arnasa bere onera buelta-tuz, estiramentu errezzak eginez.

iTZiAR

Kirolak

83 31 03

Carmen

ARRAINDEGIA

Tfnoak: 83 05 37 83 33 71

AURRERA

disko-taberna

ORIO

Itsasoaren gora beherak

Guri, hemen jaio eta bizi garenoi ez iruditu arren, lehenengo aldiz itsasoa ikusten duenari, zenbat gauza ez zaizkio burura etorriko.

PATXI OLIDEN

Nahiz eta gaur egun telebista dela bide, itsasoa ez izan lehen zen bezain izkutua, hala ere, oraindik ba ditu zeresan edo ikusteko gairik.

Asko edo denak berehala joango dira behatz muturra uretan sartu eta gazi geza probatzen. Bainan hau kalan bada ez da ezer. Bestalde, hondartzan bada, uhin edo olatuak jota laister bustiko zaizkio oinak eta esan: honi nork esan dio aurrera etorze? Hona hemen beste fenomenu berezia; uhin edo olatuak. Kanpoko ekaitz edo haize haundick eragiten diotenean, sortzen dira olatuak. Horregatik hemen Kantauri itsasoan guk esan ehi diogun bezela "itsas haundia" badago, ez da ekaitza urrutit ibiliko.

Niri galdetu izan dit Orioko kanpinera etortzen zen czagun batek ea harriurri muturrari inoiz itsasoak gainetik eragiten al zion. Nire crantzuna izan zen, udaran izan beharrean etorzedila neguan eta ikusiko zuela, ez behin bakarrik baitik askotan itsasoa harri boien gainetik.

Baina benetan harritzen dituen fenomenoa eta uhinak bezela telebistan nabaritzen ez dena, itsas gora eta itsas beherarena da. Honek

bai egitan harritzen dituela.

Orain kontatuko dizuet ni baino zaharragoa zen bat entzuna, jaiotzaz azkoitiarra eta gero hemen bizi zen batetik kontatua.

Gure gazte denboran, han Azkoitin, ez zegoen beste toki askotako antzera, ne-kazaritza besterik. Gero abarketa olak eta hauek zabalten zieten etxeetara txanpon batzuk irabazteko abarketa jostea. Ez dutuste beharrezkoa denik abarketa edo esparkin oinetakoa zer zen adieraztea. Nola garai haitan ez auto motor edo trenik ere ez zen, herrian zerbait bulizirik bazen eta sinisgogorrik ere bai, erantzuten omen zitzaien: "itsasoa ikusitako gizonak esan dik behintzat eta".

Hau honela, itsasoa ikusitako gizon hainek esanda, sinisten zuten hemengo ura gazia zela eta gora eta behera ibiltzen zela. Behin batetan, etorri omen zen gizon soil bat Zarautzera eta aproba egitera jaitxi ere hondartzara. Probatu zuenean zein gazia zen eta han Azkoitin bizi


zirenei erakusteko asmoz, joan omen da tabernara botila baten bila eta berriro hondartzara itzulia, bete du muturreraino botila. Bainan gorantz datorrela, itsas behera dagoela jabeturik eta gero gainez egin ez diezaion non hustutzen duen botila erdiraino "bada ez bada ere".

Madrildarraren beldurra

Garai haitan, Zarauzko familia askok udara etortzean, beren etxebizitzat alokatu ohi zuten. Egun batez, Madrilgo alargun bat, joan da hondartzara lehenengo aldiz, antza denez, emakume hau alargundu baino lehenago Mediterraneo aldeantza joaten zena izan eta hondartzan hartu du leku bere ustez ur etzean. Hemen tokia hartu zuenean, itsas behera egon nonbait eta etzanda jarri orduko, non etortzen zaion ura bera zegoen tokiraino. Ikusirik tokirik gabe geratu zela, ora-

indik gaizki pentsatu baino lehen joan da gorago eta jarri da berriro, ustez lasai. Handik segidan berehalaxe, berriro uretan gure emakumea eta oraingoan piska bat kezkatua, igo omen da oraindik goraxeago eta berriro jarri bere trepetxoekin. Bainan oraingo honetan, hartu berarekin zituen traste guztiak eta hanka etxera. Etxekoandreak hain goizo zetorrela ikusirik, zeharo harriturik galdeztzen dio zer gerta ote zaion eta bestearren erantzuna dena larriturik. Kontu baino kontu, une batetik bestera etxeraino zela itsasoa esan omen zion. Hau entzun orduko, etxe-koandrea hasi zaio algaraz lehertzen eta argitu dio nola haren kezka horiek ez diren funisezkoak erahandik ordu batuetara, berriro urak alderantzik beheraka nola joango diren eta orduantxe lasaitu gure emakumea.

Oraindik ere nahiz herri barruko edo Mediterraneo itsas ertzekoentzako, herribiziko jakin minasortzen du fenomeno honek.





EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Laster Iñauteriak direla eta, oraingo honetan mozorrotuta dauden kuadrilla honetako nesken izenak eman behar dizkiguzue. Erantzuna zertxobait zailagoa egiteko galdera honi ere erantzun beharko diezue. Zenbat baporek dute bost kilometroko sare pelajikoak erabiltzeko eskuidea? Erantzuna, erreportaian izango duzue.

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.
Afarria Itsas Ondo Jatetxearen izango da.

Erantzunak otsailaren hemeretzirako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara) Aurreko aleko irabazlea **Lino Carrera** izan da. Hau da eman beharreko erantzuna: Jesus Manterola, Juan Mari Garate, Juan Jose Arruti, Jose Mari Ibargoien, Julian Manterola eta Leokadio Agirre.

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bozkariak




kaia kalea, 7
tlfnoa: 13 11 79



JUDITH GONZALEZ
14 urte

*EUSKERA, EUSKALDUNEN HIZKUNTZA DA,
ETA ORDUAN EUSKAL HERRIAN JATOR
ERABILI BEHAR DA*



D.Bastos
1990